

Lehen tokadiskosa

Arrate Egaña

Abestia deskargatu nuen, *pen drive* batean sartu eta egongelan nuen musika irakurgailuari krokatu nion. Oso iaioa izan ez arren, dantzatzeari ekin nion gorputz atal guztiak astinduz. Abesti bera behin eta berriro ozenki jarri nuen, harik eta Juanita, behe pisukoa, kexatzera igo zen arte. Abesti hura gehiagotan entzun banuen ere (autoa gidatzean, eta martzianoen pelikula batean), ordura arte ezin izan nuen lasai dantzatu...

Urteak ziren dantzaldi hura egiteko geratu zela. Ahizpa eta biok hilabeteak generamatzan gurasoak gogaitzen tokadiskosa erosteko kalakarekin. Baina etxean ez zen giro. Aita langabezian, izeba kartzelan, eta urriko arratsalde eguzkitsu hartan gurasoak eztabaidan gure erruz: amak baietz, erosteko behingoz, eta aitak ezetz. Azkenean, gurea izan zen garaipena, nahiz eta niretzat pirrikoa izan (ez nituen gustuko gurasoen kalapitak), eta loriotsua ahizparentzat, pozak eza-batu baitzituen albo-kalteak.

Aita marmarka zihoan, muturtua, Etxebeste saltokirantz; ahizpa saltoka, txoratzan; ni artega. Bidean, Txiki eta Otaegiren aldeko manifa bat zeharkatu genuen; aitak lagun batzuk agurtu eta aurrera egin zuen kopetilun. Biteri kalean geundela, nire lagun Maribi topatu, eta elkartu egin zitzaigun tokadiskosa eroatera gindoazela jakitean.

Etxebeste herriko dendarik argitsuena eta modernoena zen; liluratuta murgildu ginen hango etxetresna elektriko berrien unibertsoan: metalzko txigorgailuak, irabiagailu anatomikoak, baltseoko dantza-kide galantena izan zitezkeen irensgailuak... Atzealdean zeuden telebistak eta musika aparatuak.

Saltzai-

leak lore handi bat zeraman buruan, eta minigonak agerian uzten zituen izter lodi pare bat bota zuri batzuetan sartuta. Tokadiskosak erakutsi zizkigun, kaxkarrenak lehendabizi (itsusiak, egurrezko kutxa batean sartuak), eta onenak gero, plater sideralez hornituak, diseinu arinekoak, dotoreak. Telefunken eta Philips ziren bi onenak, neskaren esanetan. Baina aitak ezetz eta ezetz, garestiegiak zirela, bereziki espazio-ontzi itxura zeukan Philips hura.

—Horixe, horixe da politena! —zioen ahizpak.

Aitak ingurura desbideratu zuen begirada, ataka hartatik nola irtengo gogoan.

—Ez duzue euskal musikarik —egin zuen purrust.

—Datorren astean disko-parrasta etorriko zaigu.

Neska ederraren ahots kantaria gai zen edo-zeri erantzuteko. Ni kezkatuta nengoen, aitaren ardura neure eginda; tripako mina jarri zitzaidan.

Halako batean, saltzaileak Philipsaren plater magikoa martxan jarri zuen; azkazal luzeak gorriz margoturiko hatz puntez kontu handiz altxatu

zuen orratza eta disko gainean pausatu zuen, bini-lozko bideak korri zitzan. Tom Jones. Ez zitzaigun abeslari hura gustatzen, baina *It's not unusual* abestiaren lehendabiziko notak ozen baino ozenago entzutean, seko liluratuta geratu ginen. Hura soinua! Tronpetek garbi urratu zuten airea, nota baxuenek lurrikara efektua sortarazi zuten, eta ile kardatudunaren ahots gozoak bahitu gintuen. *It's not unusual to be loved by anyone, It's not unusual to have fun with everyone...* zioen abestiak, eta, ezer ulertu ez arren –“frantsekoak ginen”–, maitasuna eta poza helarazi zigun. Bat batean, motiboak genituen pozik egoteko! Ostirala zen, eguzkia ari zuen kanpoan eta Franco hiltzear zegoen!

Saltzaileak dantzatzeari ekin zion txoko hartan dendak zuen mila ispiluzko bola azpian, eta ahizpak eta Maribik imitatu zioten; aitak ere erritmoa jarraitzen zuen aurpegian irri ergeltxo batez! Nik, hura ezin sinetsi, ordea, enbor zati bat bezain geldi paratu nintzen, lotsatuta, amua irensten ari zirela konturatuta...

Abestia amaitu zenean, aitak Philips tokadiskosa hartu zuen, eta horrekin batera Tom Jonesen diskoa.

—Hau ere bai! —ahizpak Simon and Garfunkelen diskoa eskuan.


Aitak dena eraman zuen eta pozik ordaindu zuen, saltzaileak erabakiagatik zoriontzen zuen bitartean.

—Ziur al zaude, aita?

Ez zidan erantzun. Tokadiskosa beso azpian zeraman, eta marmarka baino, ahapetik abesten zihoan. Maribi eta ahizpa ere poz-pozik etxerako bidean, eta ni kezkatuta. Ama haserretuko zen, ziur, “garestioagorik ez al zegoen?” galdetuko zigun ironikoki, ohi zuen moduan. Baina horrelakorik ez zen gertatu: amak ere, guk pairatutako sorginkeriaren menpe, liluratuta geratu zen aparatuekin.

Ahizpa eta biok *Simon eta Garfunkelen* diskoa etengabe entzun genuen, abestiak buruz ikasi arte, eta ondoren beste disko asko heldu ziren, utziak edo erosiak, beste egoera askori musika jartzen. Eta Jones ahaztu genuen, kasualitatez *It's not unusual* pare bat aldiz entzun nuen arte.

Glady's Knight
Tina Turner
Chaka Khan
Cybil Shephard
Rita Coolidge
Donny Osmond
Marisa Berenson
Stephanie Mills



JONES

Duets